



Middle East without Wars and Oppressions. Bilbao Working Team - Coordination

GERRARIK ETA ZAPALKUNTZA BARIK EKIALDE HURBILAREN ALDE. BILBOKO LAN TALDEA

Bilboko Ekimenaren erreferentziako dokumentua.

(Ondoko erakundeek onartua: PNGO, Ittijah, AIC, ECCP eta MEWANDO)

Guk, sare, erakunde, ikastetxe eta gizarte eragileok, erabaki dugu “Palestinarentzako bake justu baterantz” izeneko topaketarako deialdi hau egitea. Bere bitartez, geure erantzuna eman nahi diogu Mewando sarearen eta Euskadiko, Espainiako, Europako eta Ekialde Ertaineko beste sare batzuen ekimenari. Sare horiek, palestinarrak-israeldar-europarren arteko forotik landa eta Bilboko 2003ko urriko topaketaren ostean, erabaki dute bake justu bat iristeko ezinbestekoa dela gizarte zibila antolatzea eta borroka horren oinarriak izan behar direla nazioarteko zuzenbidea, giza-eskubideen aitortzen unibertuala eta autodeterminazio eskubidea. Erreferentziako dokumentu honen bidez, dei egiten diogu nazioarteko gizarte zibilari, justiziaren alde eta Palestinarentzako bake iraunkorren alde mobiliza dadin.

Azken urteotan Ekialde Ertain osoan barrena hedatu diren gerra, okupazio eta domeinu arrotzak era guztietako sarraski, triskantza, gerrako krimen eta oinarritzko giza-eskubideen urraketa ekarri dituzte berekin. Egoera hori oso larria da Palestina eta Israelen arteko gatazka kolonialean, non munduko erresuma nagusien –bereziki Estatu Batuen eta Europako Batasunaren– laguntza politiko, diplomatiko eta ekonomikoki esker, Israel eginahalean ari baita Palestina historikoko lur puska ahalik eta handiena bereganatu beharrez, jatorrizko biztanle palestinarrak ahalik eta gehienak kanpoan utziaz.

Madrilgo 1991ko Ekialde Ertaineko Konferentziaren ostean etorritako Osloko prozesuak eta Bide-Orriak ez zuten aintzat hartu funtsezko justizia sentimenduak eta ez ziren gauza izan Palestinan bake iraunkorra, segurtasuna edo oparotasuna segurtatzeko. Oraintsuago, Anapoliseko konferentzian, Estatu Batuek Ekialde Ertainean dauzkaten interesak zerbitzatzeko egindako bilkuran, ez bakarrik alde batera utzi ziren nazioarteko zuzenbide printzipio behinenak, baina baita ere gatazka hori justiziaren bidetik konpontzeko baldintza oinarritzkoenak. Funtsean, Ekialde Ertaineko biztanleen ustez, gobernu arteko ekimen horien guztien helburua ez da besterik baizik eta palestinarrak lurra kolonizatzeko, gizarte sozialki eta ekonomikoki desegonkortzeko eta Ekialde Ertaineko bizi-baldintzak gero eta gehiago hondatzeko abiatua dagoen prozesua estali eta kudeatzea.

Hona hemen Palestinan justizia eta bake oso eta iraunkorra lortzeko bete beharko liratekeen oinarritzko hiru baldintzak:

1. Bukatu egin behar da israeldarren okupazioa eta lurralde arabiar eta palestinarrak kolonizazioa, Ekialdeko Jerusalemena barne.
2. Aitortu eta gauzatu egin behar dira errefuxiatu palestinarrak eskubideak, euren artean beren lur eta ondasun galduetara itzultzeko duten eskubidea, Nazio Batuen Erakunde 194 (III) Ebazpenean finkatutako eran.
3. Bukatu egin behar da Israelen bizi diren palestinarrak aurkako arrazaren diskriminazio eta deslegitimazio sistema.

2000. urtetik hona Israelak areagotu egin du palestinarrak aurka darabilen politika arrazista eta kolonialista. Hori hainbat arlotan ikusten da: zigor kolektiboak sistematikoki aplikatzen ditu, areagotu egin du kolonizazioa, Apartheidaren Harresia lurralde okupatuetan eraikitze lanak, palestinarrak baliabide naturalen lapurreta, gizarte palestinarrak zatiketa, palestinarrak etxeen errausketa, funtsezko askatasunen urraketa setioen eta etengabeko eraso militarren bitartez, milaka preso politiko kartzelaratu, oinarritzko osasun eta hezkuntza zerbitzuak populazioari ukatuz, zibilak indiskriminatuki erailez (hildako horien artean heren bat haurrak dira), gizarte palestinarrak azpiegitura sistematikoki errauskitu eta palestinarrak landa lurak eta ingurumena hondatu eta sakailatu.



Middle East without Wars and Oppressions. Bilbao Working Team - Coordination

GERRARIK ETA ZAPALKUNTZA BARIK EKIALDE HURBILAREN ALDE. BILBOKO LAN TALDEA

2006an palestinarrek hauteskunde demokratiko batzuetan libreki aukeratu zituzten beren hautetsi eta ordezkari politikoak. Ordea, nola emaitza ez baitzen bere gustukoa izan, Israeliek blokeo ekonomiko eta finantzario gogor bat ezarri zien eta ondoren Estatu Batuek eta Europako Batasunak erabateko setioa ezarri dute Gazako zerrendako milioi eta erdi palestinarren gainean, ekimen hori gerrako krimena bezala definitu baitute Nazio Batuen Erakundeko goi funtzionarioek. Berrikitan, Europako Batasunak Israeletikiko Elkartasun Akordioa hobetzea erabaki du, nahiz eta Israeliek nabarmenki eta sistematikoki urratzen duen akordio horrek klausula batean bere sinatzaileei exijitzen dien giza-eskubideak bermatzeko obligazioa. Palestinako gizarte zibilaren eta bere nazioarteko sostengatzaileen begietan akordio horrek argi erakusten du nolako konplizitatea duen Europako Batasunak israeldarren okupazioarekin eta Israeliek egiten dituen giza-eskubideen urraketekin.

Palestina etnikoki garbitu ondoren —palestinarrek *Nakba* deitzen duten hondamendi hartan— sortu zen duela 60 urte Israelgo Estatuak; geroztik, Estatu horrek 41 urtez okupatu ditu Zisjordania, Gaza, Sheebako etxaldeak eta Golaneko gainak; orain, Estatu Batuek Irak inbaditu zutenetik bost urte igaro direnean, Ekialde Ertain osoa dago eztanda egiteko zorian. Horri guztiari gehituz gero, Estatu Batuak eta Israel Iranen aurka egiten ari diren mehatxu militarrek (lehenago Siria mehatxatu zuten), sekula baino argiago dago elkartasun eraginkor baten premia gorria dagoela eta Ekialde Ertaineko arazoak konpontzeko ikuspegi erregional eta multilateral bat behar dela, nazioarteko zuzenbidea errespetatuko duena eta giza-eskubideak betearaziko dituen.

Esandako guztia gogoan harturik, iruditzen zaigu hauxe dela elkartasun-bide eraginkorrena eta moralena palestinarrek askatasuna, berdintasuna eta bake justua lortzeko darabilten borrokan laguntzeko: babes irmo eta kreatiboa ematea Palestinako gizarte zibilak BDZ (Boikota, Desinbertsioa eta Zigorrak) kanpainarako egin duen deialdi bateratuari, Israeliek bete ditzan nazioarteko zuzenbideak ezartzen dizkion eginbeharrak.

Gaur, Europako gizarte zibilaren ordezkariok dei egiten diegu Ekialde Ertaineko gure kontraparteei agenda bateratu bat presta dezagun denon artean Ekialde Ertainean bake justu eta iraunkorra iristeko, eta indarra egin dezagun gure gobernuen gainean eta Estatuko nola nazioarteko erakundearen gainean, lagundu dezaten eurak ere bake hori lortzen. Gizarte zibilaren asanblada honek errotik errespetatzen eta sustatzen du Ekialde Ertaineko biztanle guztiek duten eskubidea bakez, askatasunez eta duintasunez bizitzeko, nazioarteko zuzenbidearen eta giza-eskubideen printzipio unibertsaletan aldarrikatutako eran.

Horregatik, “*Bilboko ekimena: Palestinarentzako Bake Justu Baterantz*” ekimenak deialdia egiten du asanblada honetarako eta bat egiten du John Dugard, Palestinako Lurralde Okupatueterako Nazio Batuen Erakundearen ordezkari bereziak hainbat txostenetan jaso dituen kezka eta eskariekin, helburutzat hartzen duelarik bake justu eta iraunkorra bilatzeko ahaleginak bultzatu eta sakontzea, eta ahalegin horien oinarritzat hartzen dituela nazioarteko zuzenbidea, Nazio Batuen Erakundearen ebazpenak eta hala Israelen Harresia nola lurralde palestinar eta arabiarretan eraikitako koloniak legez kanpokotzat jo zituen 2004ko uztailearen 9ko Nazioarteko Justizia Gortearen iritzi kontsultiboa.

Mundu hobe baten alde lan egiterik badagoela sinesten duten erakunde eta hiritar guztientzat nahitaezko eginbidea da ahotsa ematea Palestinan bakea eta justizia bultzatu beharrez iragan hainbeste urtean lanean ari den gizarte zibilari. Gure borroka bateratuak ondoko oinarri irmoak izan behar ditu:

- Nazioarteko zuzenbidea.
- Gizakume guztiak, edozein izanik ere bakoitzaren sexu, erlijio edo jatorri etnikoa, eskubide berdinen jabe dira.
- Politika kolonial, arrazista eta zanpatzaile guztiak amaitzeko konpromisoa.